




EE480000030CY5000000002 0204201 (A) 23 9014-9994



**OBISPADO DE BILBAO
CL VIRGEN DE BEGOÑA, 38
48006 BILBAO
BIZKAIA**

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILAren jakinarazpena gehitu da, bertan adierazitako administrazio-organoak emandakoa.

Se adjunta notificación del DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE, dictada por el órgano administrativo que en la misma se indica.



Jasotzailea/Receptor

Tokia eta data/Lugar y fecha

Bilbo, 2023(e)ko abuztuaren 1(a)

Bilbao, a 01 de agosto de 2023

OBISPADODEBILBAO

Virgen de Begoña, 38

Kultura Ondarea/Patrimonio Cultural

48006 BILBAO (BIZKAIA)

Gaia/Asunto

Envio Decreto Foral

Honekin batera, Ahaldu Nagusiaren uztailaren 27ko 185/2023 Foru Dekretuaren kopia bidaltzen da. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023.urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Araun Bilboko Gotzaindegiari diru-laguntza hori 2023ko ekitaldian Bizkaiko zenbait erretaula zaharberritzeko lanen zati bat finantzatzekoa da.

Adjunto se remite, copia del Decreto Foral del Diputado General 185/2023, de 27 de julio, por el que se concede la subvención nominativa prevista en la norma Foral 10/2022, de 28 de diciembre de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023 en favor del Obispado de Bilbao para la financiación parcial de la restauración de retablos durante el ejercicio 2023.

Administrazio-bidea amaitzen duen Ahaldu Nagusiaren foru dekretu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Ahaldu Nagusiari, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko (1) epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, aipatu den modu berean zenbatuko den bi (2) hilabeteko epean.

Contra el presente Decreto Foral del Diputado General, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Ilmo. Sr. Diputado General de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos (2) meses contados de igual forma.

Begirunez, agur.

Atentamente,

Sin./Fdo.: ARANTZA GONZALEZ SAN ROMAN GONZALEZ SAN ROMAN 2023-08-01
 Ord./Sust.: ALBERTO SANTANA EZQUERRA
 KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUKO BURUA
 JEFE/A SERVICIO DE PATRIMONIO CULTURAL

Sin./Fdo.: ARANTZA GONZALEZ SAN ROMAN GONZALEZ SAN ROMAN 2023-07-19
 Ord./Sust.: ALBERTO SANTANA EZQUERRA
 KULTURA ONDAREAREN ZERBITZUKO BURUA
 JEFE/A SERVICIO DE PATRIMONIO CULTURAL

Sin./Fdo.: BEGOÑA DE IBARRA ZUAZO 2023-07-20
 KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
 DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

Sin./Fdo.: LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA 2023-07-24
 EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA-REN FORU DIPUTATUA
 DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2023-07-27
 AHALDUN NAGUSIA
 DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DG 00185/2023 - Data/Fecha: 2023-07-27
 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2023-07-27

Ahaldun Nagusiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna Bilboko Gotzaindegiari ematen zaio. Dirulaguntza hori 2023ko ekitaldian Bizkaiko erretaulak zaharberritzeko lanen zati bat finantzatzeko da.

DECRETO FORAL de la Diputada General, por el que se concede la subvención nominativa prevista en la Norma Foral 10/2022, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, a favor del Obispado de Bilbao para la financiación parcial de la restauración de retablos durante el ejercicio 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eta, zehazki, Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bidez, arretaz lan egiten du Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat interesgarriak diren ondasunak berreskuratzen.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte y concretamente desde su Servicio de Patrimonio Cultural, dedica especial atención a la recuperación de bienes que presentan interés para el Territorio Histórico de Bizkaia.

Helburu hori lortzeko, foru-aldundiaren kudeaketa-politikak oinarritzeko hiru ardatz ditu:

En este sentido, su política de gestión gira en torno a tres ejes fundamentales:

- Ikerketa
- Zaharberrikuntza eta kontserbazioa
- Zabalkuntza

- Investigación
- Restauración-Conservación
- Difusión

2023ko ekitaldiari begira, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat eta beharrezkotzat jotzen du ondare higigarri erlijiosoak berreskuratzeke politikari jarraipena ematea. Izan ere, ondare higigarri erlijiosoak interes historiko, artistiko

De cara al ejercicio 2023 la Diputación Foral de Bizkaia considera adecuado y necesario dar continuidad a la política de recuperación del patrimonio mueble religioso, que cuenta con indudable interés histórico, artístico y social



eta soziala du zalantzarik gabe Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat.

para el Territorio Histórico de Bizkaia.

Elizaren ondarea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan, Eliza Katolikoari dago lotuta, arrazoi historikoengatik. Bestalde, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki hartuta, Eliza Katolikoaren jabetzako ondarea da garrantzirik handiena duena, bai higigarriei bai higiezinei dagokienez, Bizkaian dagoen ondare kultural eta historikoaren artean.

El patrimonio eclesiástico en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia está ligado por razones históricas a la Iglesia Católica. Y, por añadidura, tanto en su consideración cuantitativa como cualitativa, el patrimonio propiedad de la Iglesia Católica es el de mayor relevancia, tanto a nivel mueble como inmueble del patrimonio cultural e histórico existente en Bizkaia.

2023ko ekitaldiari begira, ondare higigarriaren arloan, Eliza Katolikoaren Bilboko Elizbarrutiak Karrantzako Sangrices elizako San Julian eta Santa Basilisa erretaulan esku-hartzea egitea proposatu du.

Para el año 2023 y en el marco del patrimonio mueble, el Obispado de Bilbao de la Iglesia Católica ha planteado la intervención en el Retablo de San Julián y Santa Basilisa de la iglesia de Sangrices, de Karrantza.

Zaharberritu beharreko erretaulak elizaren burualdea hartzen du. Barrokoa da, XVII. mende aurreratukoa, eta harrizko atiko batek, bi gorputzek eta hiru kalek osatzen dute. Dimensio hauek ditu: 6,90 m-ko altuera atikorik gabe, eta 8 m-ko zabalera; sagrarioa, gaur egun erretaulatik berezita dagoena, 1,60 x 0,95 x 0,76 m-koa da; atikoak gutxi gorabehera 1 m-ko altuera du. Egur polikromatuz eta urreztatuz egina da, Erdiko nitxo bat eta alboko horma-hobi bi ditu lehen gorputzean, eta etxea goiko solairuan.

El retablo a restaurar ocupa la cabecera del templo. Es de estilo barroco, de avanzado el siglo XVII, y se compone de sotabanco pétreo, dos cuerpos y tres calles. Sus dimensiones son de 6,90 m. de alto sin sotabanco, y 8 m. de ancho; el sagrario, actualmente separado del retablo, es de 1,60 x 0,95 x 0,76 m.; el sotabanco es de aproximadamente 1 m. de altura. Realizado en madera policromada y dorada, se abren en él un nicho central y dos hornacinas laterales en el primer cuerpo, más casa en el piso superior.

Mazoneriak binakako sei zutabe ditu Erdialdean, eta kaleak definitzen dituzte. Atikoan, berriz, bi korintoar zutabe bikote daude. Neurri txikiko eta erliebe gutxiko mahatsondoz apainduta daude; beheko solairukoak mentsula kiribildu nabarmenetan bermatzen dira. Erdiko ataleko zutabeek zirkuluerdiko arku bat osatzen dute, eta arkuarteetan eta alboetan landarez apainduta daude. Jatorrian, espazio horretan sagrarioa zegoen; gaur egun, presbiterioaren ezkerrean dago. Erdiko nitxo horretan hildako Kristo gurutziltzatuaren taila bat dago, erretaularen garaikidea, tenpluaren hormaren gainean zuzenean kokatua.

La mazonería incluye seis columnas pareadas en la parte central, que definen las calles. Mientras en el ático son dos parejas de columnas corintias. Se decoran con vides de fina talla y poco relevadas, descansando las del piso bajo en destacadas ménsulas avolutadas. Las columnas del cuerpo central definen un arco de medio punto, adornado con vegetales en las enjutas y en los laterales. Este espacio sería originalmente donde se ubicaba el sagrario, que actualmente se sitúa en el lado izquierdo del presbiterio. Este nicho central lo ocupa una talla de Cristo crucificado, muerto, contemporáneo al retablo, dispuesto directamente sobre el muro del templo.



Eskuinaldean, erdi-puntuko beste horma-hobi batean, Sortzez Garbia ageri da, hori ere erretaularen garaikoa, Gregorio Fernándezen modeloei jarraituz egina. Aurrez dagoen irudia da, kerubineen hodei baten gainean jaso, eta oihal oso zurrunik ditu, zuri eta urdin polikromatuak, tunikan eta mantuan, hurrenez hurren. Keinu gogorra du, aurpegi mehea eta kristalezko begiak, eta ilea sorbaldetan eta bizkarrean pausatuta du. Geroagoko koro metaliko bat du edergarri. Horma-hobiaren bestaldean Jesusen Bihotzaren irudia dago, askoz modernoagoa.

Bigarren solairuaren alboetako espazioak hostotzaz beteta daude, horma-hobi dintelduaren alboetan. Bertan daude San Julian eta Santa Basilisa elizako zaindari santuen tailak, 304. urte inguruan martiritzatutako senar-emazteak. Erretaula egin zen garaiko bi eskultura dira, nolabaiteko mugimendua erakusten dutenak, eta polikromia ikusgarri bat, urdin, gorri eta urre kolorekoa.

Kolore berberak errepikatzen dira goiko eta alboetako errematearen hostotzan, landareetan eta orbel haragitsuan eta gorputzen frisoan-banaketan. Oro har, urre leundua erabili da, distiratsua eta matea, garai hartan gustukoa zen bezala, eta, gainera, esgrafiatutako motibo batzuk aplikatu zaizkio tenplaketari, landareen errepertorioa errepikatuta.

Erretaulako altzaritik kanpo sagrarioa dago. Oinplano karratuko altzari bat da, angeluetan mahatsondo-hostoz, mahats-mordoz eta mahasti mamitsuz betetako zutabetxo salomonikoak dituena. Atea galdu du, eukaristia-motiboduna seguruenik, baina alboetan San Pedro eta San Pablaren erliebeak kontserbatzen ditu, kanon laburrekoak, oihal erliebedun eta anatomia sendokoak, dagozkien ezaugarriekin apainduak. Beste hosto eta motibo begetal batzuekin dekoratuta daude altzariaren errematea eta oinarria, dena urreztatuta, eta erretaula nagusiaren paletaren arabera polikromatutako elementu batzuekin.

A la derecha otra hornacina de medio punto acoge una Inmaculada, también de la época del retablo, siguiendo modelos de Gregorio Fernández. Es una imagen frontal, elevada sobre una nube de querubines, con paños muy rígidos policromados en blanco y azul, en túnica y manto, respectivamente. Su gesto es severo, de rostro fino y ojos de cristal, con los cabellos cayendo por los hombros y la espalda. Y se embellece con corona metálica, de fecha posterior. Al otro lado la hornacina exhibe una imagen del Sagrado Corazón, mucho más moderna.

El segundo piso se cierra con espacios laterales llenos de fronda, que flanquean al nicho adintelado, donde se ubican las tallas de los santos patronos de la parroquia, San Julián y santa Basilisa, esposos martirizados hacia 304. Se trata de dos esculturas contemporáneas a la fábrica del retablo, que muestran ya cierto movimiento, y una vistosa policromía en azules, rojo y oro.

Esos mismos colores se repiten en los motivos de fronda, vegetales y hojarasca carnosa del remate superior, los laterales y friso-divisorio de los cuerpos. Destaca en general el uso del oro bruñido, en brillo y mate, como era del gusto en la época, además de la aplicación de algunos motivos esgrafiados al temple, que repiten el repertorio de los vegetales.

Fuera del mueble del retablo se encuentra el sagrario. Se trata de un mueble de planta cuadrada, que se desarrolla en los ángulos con columnillas salomónicas ocupadas por pámpanos, racimos y vides de jugosa hechura. Ha perdido la puerta, probablemente de temática eucarística, pero en los laterales conserva relieves de San Pedro y San Pablo, de canon corto, abultados paños y recia anatomía, guarnecidos de los correspondientes atributos. Otras hojas y motivos vegetales terminan de decorar el remate y la base del mueble, todo dorado con algunos elementos policromados de acuerdo con la paleta del retablo mayor.



Multzo hori XVII. mendearen azken hereneko Kantabriako tailerretan egin zen, seguruenik.

La realización del conjunto se podría adscribir a talleres cántabros del último tercio del siglo XVII.

Aipatutako erretaula horren gaineko zaharberitzeko jarduerak jarraian deskribatuko direnak dira:

Las actuaciones de restauración sobre el retablo son las que se describen a continuación:

1. Egiturazko esku-hartzeari dagokionez, ez da erretaularen zatirik desmuntatzea aurreikusten. Erretaularen eta hormaren arteko ainguraketak berrikusiko dira eta predelan-bankuan irtenda dauden eremuak beteko dira.

1. En cuanto a la intervención estructural, no se contempla desmontaje de ninguna parte del retablo. Se revisarán los anclajes del retablo al muro y se rellenarán zonas voladas en predelabanco.

2. Azaleko garbiketa egingo da ageriko gainazal osoan, zuloguneetan, junturetan, pitzaduretan eta arrailetan. Horretarako, ile leuneko brotxa eta pintzelak eta presio txikiko xurgapena erabiliko da, pintura-geruza altxatuta dagoen eremuak saihestuz. Gune horietan, garbitu aurretik, kolorea berdinduko da.

2. Limpieza superficial en toda la superficie visible, oquedades, juntas, grietas y fendas, que se realizará mediante brochas y pinceles de pelo suave y aspiración de baja presión, evitando las zonas en las que la capa pictórica se encuentre levantada, en donde se procederá a un sentado de color previo a la limpieza.

Ez da produktu kimikorik erabiliko.

No se utilizará ningún tipo de producto químico.

Ahal den neurrian, ukuiluaren atzealdea garbituko da.

Se limpiará en la medida de lo posible la trasera del establo.

3. Beharrezkoa izanez gero, piezak tailerrera eramango dira.

3. Traslado de piezas al taller en caso de que sea necesario.

4. Zuren eta polikromien laginak hartuko dira. Lagin horiekin batera, erretaularen eta/edo dagokion irudiaren tokia adierazten duen grafiko bat aurkeztu beharko da. Erakunde eskatzaileak aurkeztutako memorian zehazten diren erretaulako elementuetatik hartuko dira laginak.

4. Toma de muestras de maderas y policromías las cuales deberán ir acompañadas de un gráfico que indique el lugar del retablo y/o de la correspondiente imagen en el que han sido obtenidas. Las muestras se tomarán de los elementos del retablo que se especifican en la memoria presentada por la entidad solicitante.

5. Zur-euskarria sendotuko da irudietan, egituran eta mazonerian.

5. Consolidación del soporte de madera en imagería, estructura y mazonería.

6. Polikromia finkatuko da (aparailuak leheneratu, eta urreztatzeen eta polikromien bigarren eta behin betiko finkatzea eta bermatzea). Kultura ondasunak—egur

6. Consolidación de policromía (regenerado de aparejos, segunda y definitiva consolidación y asentado de dorados y policromías). Se efectuará mediante colas y adhesivos



polikromatuzko eskulturak kontserbatzeko eta zaharberitzeko egokitzat jotzen diren kola eta itsasgarri tradizional edo sintetikoek bidez egingo da. Erabiltzen diren produktuek eta metodoek ez dituzte polikromien propietate fisikoak eta kimikoak aldatu behar, ezta haien itxura estetikoa ere.

7. Polikromiak eta bernizak garbituko dira, eta berriro pintatutako guneak fisikoki eta kimikoki ezabatu (halakorik balego).

8. Obrekin zerikusirik ez duten elementuak kenduko dira.

9. Obra ulertzea zaildu dezaketen elementuetan bolumenak leheneratuko dira, beharrezkoa bada, esku-hartzearen ondoren. Egiturazko ezaugarriren bat izan dezaketen bolumenak berriro integratuko dira.

10. Hutsarteen iztukadura-estalkia obraren antzeko aparailu bidez egingo da, eta soilik obraren irakurketa egokia zailtzen duten hutsarteetan.

11. Kolorea metodo bereizgarriarekin leheneratuko da, hutsarteen mugetaraino bakarrik, material kaltegabe eta itzulgarriekin. Leheneratzea nabarmena izan behar da distantzia nahiko laburretik begiratuta.

12. Azken babesa emango zaio, jatorrizko akabera eta estetika errespetatuz, kontserbazioaren eta zaharberitzearen esparruan aitorturiko kalitatea duten materialekin. B.72 Paraloid-a ezin da erabili azken akaberako/babeseko material gisa.

13. Beste batzuk: lehen solairuko horma-hobian itxitura bat jarriko da, erretaularen gainerakoan antzeko akabera izango duena, eta erretaularen zurtoinen kokapena aldatuko da, erakunde eskatzaileak aurkeztutako jarduketaren memoriaren arabera.

tradicionales o sintéticos reconocidos como aptos para la conservación-restauración de Bienes Culturales - escultura en madera policromada. Los productos y métodos que se utilicen no deben alterar las propiedades físicas y químicas de las policromías, ni su aspecto estético.

7. Limpieza de policromías y barnices, y eliminación físico-química de repintes (si los hubiera).

8. Eliminación de elementos ajenos a las obras.

9. Reintegración de volúmenes si fuera necesario tras la intervención, en aquellos elementos que pudieran ser perturbadores de la lectura de la obra. Los volúmenes que puedan poseer una característica estructural serán reintegrados.

10. Estucado-aparejado de lagunas que se realizará mediante aparejo similar al de la propia obra y solo en aquellas lagunas que dificulten la correcta lectura de la misma.

11. Reintegración de color con método discernible, que se realizará ciñéndose a los límites de las lagunas, con materiales inocuos y reversibles. La reintegración ha de ser perfectamente discernible a una distancia prudentemente corta.

12. Protección final respetando el acabado y la estética primitiva con materiales de reconocida calidad en el campo de la conservación y restauración. El Paraloid B.72 está descartado como material de acabado final/protección.

13. Otros: se colocará un cierre a la hornacina del primer piso, de acabado similar a los del resto del retablo y se cambiará la ubicación de las tallas del retablo en los términos de la memoria de actuación presentada por la entidad solicitante.



14. Babeslearen kartela jarriko da.

14. Colocación de cartel patrocinador.

14. Memoria/amaierako txostena.

15. Memoria/Informe final.

Amaierako memoria bat aurkeztuko da; horren barruan egin diren tratamenduen deskribzioa sartuko da eta horiek azaldu eta justifikatuko dira; halaber, prozesuan zehar sortutako gorabehera guztiak azalduko dira. Eduki zehatza erakunde eskatzailearen memorian zehazten da.

Se presentará una memoria final que incluirá la descripción de los tratamientos realizados y la explicación y justificación de los mismos, así como cualquier incidencia surgida durante el proceso, su contenido concreto se especifica en la memoria de la entidad solicitante.

Jarduera orokorren zerrenda horri egin beharreko lanetako espezialitate teknikoak aplikatuko zaizkio, baita aldamiok baldintza zehaztetan jartzea ere, erakunde onuradunak egindako jarduketa-memoriaren edukiarekin osatzen den moduan.

A este listado de actuaciones generales les serán de aplicación las especialidades técnicas en las labores a ejecutar, además de la colocación de andamiaje en condiciones concretas, según se completa con el contenido de la memoria de actuación que se ha elaborado por la entidad beneficiaria.

Erakundeak emandako informazioaren arabera, erretaula zaharberitzeko jardueren aurrekontua 35.489,30 eurokoa da.

De conformidad con la información facilitada por la entidad, para la restauración del retablo, el presupuesto estimado para las actuaciones asciende a la cantidad de 35.489,30 euros.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2.a) artikuluan xedatzen du Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan aurrez ikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla. Era berean, 26. artikuluan ezartzen du hitzarmenak izango direla diru-laguntza horiek bideratzeko ohiko tresna.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, dispone en su artículo 20.2.a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia. Establece, así mismo, en su artículo 26 que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar dichas subvenciones.

Alde horretatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuak, martxoaren 23koak, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duenak, xedatzen du Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 20. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako zuzeneko diru-laguntzak emateko araudia, hitzarmenetan taxutua, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak onartuko duela, dagokion saileko foru diputatu titullarrak proposatuta. Diru-laguntza horiek emateko ebazpenen bidez bideratzen badira, horiek arautzen dituen araudia organo

En este sentido, el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, dispone que la normativa reguladora para la concesión de las subvenciones directas previstas en el apartado 2 del artículo 20 de la Norma Foral de Subvenciones, instrumentada en convenios, será aprobada en todo caso por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del diputado o la diputada foral titular del departamento correspondiente, si



eskudunak onartuko du, Aurrekontuei buruzko Erregelamendu Orokorrean zenbatekoaren arabera ezartzen diren mugak kontuan hartuta.

bien cuando las citadas subvenciones sean canalizadas a través de resoluciones de concesión, la normativa que las regule será aprobada por el órgano competente, atendiendo a los límites que por cuantía se establezcan en el Reglamento General Presupuestario.

Hori guztia kontuan hartuta, diru-laguntza hori emateko, kontuan hartu da zer eskuduntza esleitzen dioten Ahaldun Nagusiari Foru-administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9. Artikuluak, 2010eko martxoaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamenduaren 12. Artikuluak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartzen duen 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriarekin lotuta, Bizkaiko Foru Aldundiko organoek diru-laguntzak eta laguntzak ematearen ondoriozko gastuak xedatzeko dituzten eskumenen mugak zehazten dituena.

Atendiendo a lo así dispuesto, esta subvención se otorga en virtud de la competencia atribuida a la Diputada General por los artículos 9 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y 12 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, que determina los límites competenciales por razón de la cuantía de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para la disposición de gastos derivados de la concesión de subvenciones y ayudas.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauan aurreikusten da Bilboko Gotzaindegia 30.000 euroko dirulaguntza izendun bat ematea. Ebazpen honen bidez diruz laguntzen den proiektuaren kudeaketaren zioz sortutako gastuari aurre egiteko, dirulaguntza aurrekontu-partida honen kontura izapidetuko da: 0404 G/333103/75100/0000 2007/0189.

La Norma Foral 10/2022, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, prevé una subvención nominativa por importe de 30.000 euros a favor del Obispado de Bilbao. La tramitación de dicha subvención se imputará a la partida presupuestaria 0404 G/333103/75100/0000 2007/0189, para hacer frente al gasto que se deriva de la gestión del proyecto subvencionado a través de la presente resolución.

Entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru diru-laguntzen onuradun izatea eragozten duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

La entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y



Hombres.

Era berean, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzea, urte asko baitaramatza horretan lanean. Horretarako, dekretu honek genero-ikuspegia txertatzen du, bai hura lantzerakoan, bai aplikatzerakoan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan -martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena- eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Asimismo, para lograr el progreso económico y social, esta Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible seguir avanzando en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres, en la que lleva trabajando numerosos años. A tal efecto, este decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, conforme se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Azaldutakoaren ondorioz, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 27.1, 39 eta 67. 1 artikuluetan eta, baita ere, Bizkaiko Foru Aldundiko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak onetsi duen Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduan xedatuaren arabera, Euskara, Kultura eta Kirol foru-diputatu andre txit argiak proposatuta, hauxe

Por todo ello, en virtud de los artículos 27.1, 39 y 67.1 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, a propuesta de la Ilma. Sra. Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte,

XEDATZEN DA

SE DISPONE

Lehenengoa.- Dirulaguntza ematea.

Primero.- Concesión de subvención.

Onesten da Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 10/2022 Foru Arauan jasotako dirulaguntza izenduna ematea Bilboko Gotzaindegiari (IFZ R4800011A); HOGETA HAMAR MILA EUROKO (30.000€) zenbateko jakina duen dirulaguntza, 0404 G/333103/75100/0000 2007/0189 aurrekontu-partidaren pentzutan, arestian zehaztutako lanak egiteko 2023. urtean zehar.

Conceder la subvención prevista nominativamente en la Norma Foral 10/2022, de 28 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, por importe cierto de TREINTA MIL EUROS (30.000€) al Obispado de Bilbao (NIF R4800011A), con cargo a la partida presupuestaria 0404 G/333103/75100/0000 2007/0189 para ejecutar los trabajos antes señalados durante el presente año 2023.



Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikulua onorioetarako, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen diru-laguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, onuradunak Aldundiak emandako diru-laguntza honekin batera beste edozein administrazio edo erakunderen laguntza ere jaso dezake foru dekretu honen xedea garatu eta burutzeko.

Bestalde, Bilboko Gotzaindegiak gainerako zenbatekoa ordainduko du esku hartzen aurrekontu osoa osatu arte.

Bigarrena.- Finantzaketa.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira dirulaguntza hauek. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Zergak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenen. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa kontratazioari buruzko arauetan kontratu txikietarako finkatutako zenbatekoak baino gehiagokoa bada, Bilboko Gotzaindegiak

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, la presente subvención foral será compatible con cualquier otra que la beneficiaria recibiera de cualesquiera Administración o ente para el desarrollo y ejecución del objeto del presente decreto foral.

Por su parte, el Obispado de Bilbao aportará la cantidad restante hasta completar la totalidad del presupuesto de las intervenciones.

Segundo.- Financiación.

La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa de contratación para el contrato menor, el Obispado de Bilbao deberá solicitar



hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Justifikazioan agerrarazi behar da aurkezturiko eskaintzen artean aukeraturikoa; hartara, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak bete beharko dira. Aukeraketa beren-beregi justifikatu behar da memorian, proposamen merkeena egin duena hautatu ezean.

Bizkaiko Foru Aldundiak Bilboko Gotzaindegiari ondasun erretaula honen zaharberritzea egiteko emandako dirulaguntza publiko osoa dagozkion 2023ko ziurtagiriak ordaintzeko erabili beharko da, Bilboko Gotzaindegiak obra ziurtagiri horiek egikaritzeko egingo dituen adjudikazioetatik ateratako prezioen arabera.

Kontratututako enpresa edo profesionalak emandako ziurtagiriak aurkeztu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Ondarearen Zerbitzuko Zaharberritze Lantegiko zuzendaritzak behar bezala onetsi ondoren ordainduko da dirulaguntza hori. Bilboko Gotzaindegiak dirulaguntzaren zenbateko hori adjudikaziodunei endosatuko diela agindu beharko du, profesionalen kasuan izan ezik. Kasu horretan zuzenean Gotzaindegiari ordainduko baitzaio, zergen derrigorrezko atxikipenak egin ahal izateko.

Dirulaguntza foral hori ordaintzea ez da eragozpena izango hirugarrengo pertsonen dirulaguntza honen erretaula zaharberritzea finantzatzeko, bai finantzaketa dirulaguntza publikoen xede diren proiektuak egiteko erabiltzen bada, bai ondasun higigarri hau zaharberritzeko eta hobetzeko beste proiektu

como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberá aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

La totalidad de la subvención pública de la Diputación Foral de Bizkaia concedida al Obispado de Bilbao para la ejecución de la restauración en el retablo descrito deberá destinarse al abono de las certificaciones de obra correspondientes al año 2023, de acuerdo con los precios que resulten en las adjudicaciones que realice el Obispado de Bilbao para la ejecución de aquellas.

El abono de dicha subvención se realizará previa presentación de las certificaciones emitidas por las adjudicatarias y debidamente visadas por la dirección del Taller de Restauración del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, comprometiéndose el Obispado de Bilbao a endosarlas a favor de las adjudicatarias, excepto en el caso de profesionales, que se abonará directamente al Obispado con el fin de poderse practicar las correspondientes retenciones obligatorias de impuestos.

El abono de la mencionada subvención foral no obsta la financiación de la restauración en el retablo objeto de la presente subvención por parte de terceras personas, bien sea dirigida a los proyectos a cuya ejecución se destinan las subvenciones públicas, bien se dirija a la financiación de otros proyectos de



batzuk finantzatzeko erabiltzen bada.

restauración y mejora de tal bien mueble.

Diru-laguntzaren zenbatekoa ezin da inoiz izan diru-laguntza jaso duen jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, finantzaketa propioa ere kontuan hartuta.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

Hirugarrena.- Onuradunaren betebeharrak.

Tercero- Obligaciones de la beneficiaria.

1. Bilboko Gotzaindegiak nahitaez bete behar du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

1. El Obispado de Bilbao quedará obligado al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Halaber, dirulaguntza publiko bat jasotzeak berekin dakar erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete behar izatea.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

2. Bilboko Gotzaindegiak, lehen aipatutako ondasun higigarriaren jabea den aldetik, agintzen du ondasun hau zaharberrituko duela, aurreko apartatuetan adierazitako lanak egitearen bidez.

2. El Obispado de Bilbao, en su condición de propietario de bien mueble descrito, se compromete a efectuar la restauración, mediante la ejecución de los trabajos referidos en los apartados anteriores.

3. Bilboko Gotzaindegia derrigorputa dago Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak enpresari endosatzeraz, profesionalen kasuan izan ezik. Kasu horretan zuzenean Gotzaindegiari ordainduko baitzaio, zergen derrigorrezko atxikipean egin ahal izateko, zaharberritzeko lanak amaitu arte.

3. El Obispado de Bilbao está obligado a endosar las cantidades que reciba como subvención de la Diputación Foral de Bizkaia, a favor de la empresa, excepto en el caso de profesionales, que se abonará directamente al Obispado con el fin de poderse practicar las correspondientes retenciones obligatorias de impuestos, hasta la ejecución final del trabajo.

4. Bilboko Gotzaindegiak idatziz jakinaraziko dio Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuari esku-hartzeak noiz hasi eta bukatuko diren. Era berean, aipatu zerbitzuko zaharberritze-teknikariei gainbegiratzeko funtzioak betetzen lagunduko die. Teknikari horiek obrak nola egikaritzen ari diren aztertuko dute, eta edozein unetan, oharrak edo iradokizunak egin ditzakete,

4. El Obispado de Bilbao comunicará por escrito al Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, las fechas de inicio y terminación de las intervenciones, facilitando las funciones de supervisión por parte del personal técnico en restauración del mencionado servicio, que inspeccionarán su ejecución, pudiendo realizar en cualquier



edo obretan hautematen dituzten akatsak zuzentzeko eska dezakete eta obrak ondo amaitzeko egokitzat jotzen dituzten iradokizunak egin ditzakete.

5. Lanen harrera egiteko edo lanekiko adostasuna adierazteko, derrigorrezkoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak haren aldeko txostena ematea.

6. Bilboko Gotzaindegiak zaharberritzeko eta kontserbatzeko lanak egiten dituzten profesional edo enpresekin sinatutako kontratuan idatziz jaso beharko ditu eranskin honetan ezarritako baldintza teknikoak eta esku hartzeko irizpideak: *"Baldintza teknikoak eta esku hartzeko irizpideak"*.

7. Bilboko Gotzaindegiak egingo duen lizitazio-prozesuak eragindako bajek, baldin badaude, funtsean, ez diete eragingo finantza-ekarpenetako baliabideei. Izan ere, baliabide horiek prezioen berrikusketetatik, likidazioetatik, aldatetetatik edo proiektuan egin beharreko lan osagarrietatik (lan nagusiak egitetik eratorritakoetako lanak) eratorritako gastuak ordaintzeko erabiliko baitira osorik.

8. Hasierako proiektuetan aurreikusi gabeko edozein obra egiteko, beharrezkoa izango da Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuak dagokion proiektuari baimena ematea, obra hori foru-dekretu honen esparruan sartu nahiz ez.

Baimenak ez dira emango Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuko zaharberritze-teknikariak egindako aldeko txostenik gabe. Teknikari horiek zaharberritzeko eta kontserbatzeko lanen gainbegiratzailerak dira, eta hasierako proiektuetan aldatetarik egin behar diren justifikatuko dute, edo aurreikusi gabe zeuden tratamenduak egitea beharrezkoa den.

momento las indicaciones, sugerencias o exigir la subsanación de los defectos que en ellas se detecten y que consideren convenientes para el buen fin de aquellas.

5. Para la recepción o conformidad de los trabajos, será preceptivo un informe favorable del Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia.

6. El Obispado de Bilbao hará constar en su contrato con los y las profesionales y/o empresas ejecutoras de los trabajos de restauración-conservación, las condiciones técnicas y los criterios de intervención que se establecen en el anexo *"Condiciones técnicas y criterios de intervención"*.

7. Las bajas, si las hubiere, motivadas por el proceso de licitación que llevará a cabo el Obispado de Bilbao, no afectarán en principio a los recursos de las aportaciones financieras, pues en su integridad se destinarán a sufragar los gastos derivados de revisiones de precios, liquidaciones, modificaciones o trabajos complementarios a realizar en el proyecto, derivados de la ejecución de los principales.

8. Cualquier ejecución de una obra no prevista en los proyectos iniciales requerirá la autorización del Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, del correspondiente proyecto, independientemente de que aquella se enmarque o no en el ámbito de este decreto foral.

Las autorizaciones no serán concedidas sin el informe favorable del personal técnico en restauración del Servicio de Patrimonio Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte, supervisor de los trabajos de restauración-conservación, que justifique las modificaciones de los proyectos iniciales o la necesidad de ejecución de tratamientos no previstos.



9. Bilboko Gotzaindegiak idatziz jasoaraziko die esku hartzeko proiektuak egikarrituko dituzten profesionaleri edo enpresei derrigorrez aurkeztu behar diotela egindako esku-hartzearen azken txostena (bi ale), adierazitako epean, Kultura Ondarearen Zerbitzuari helarazteko. Txosten horren edukian, zehaztasun osoz adierazi beharko dute zer prozesuri jarraitu dioten, eta esku hartzeko irizpideak azaldu eta justifikatu beharko dituzte, bai eta esku-hartzearen ezaugarriak eta alderdiak eta aplikatutako tratamenduak ere. Halaber, formulazio guztiak, analitika, erabilitako produktuen fitxa teknikoa, dokumentazio grafikoa, argazki- eta bideo-dokumentazioa (baldin badago) ere aurkeztu beharko dituzte digital euskarrian. Horrez gainera, CD-Romean sortutako argazki-dokumentu guztiak jasoko dira, txostenaren paperezko kopia batekin, egindako esku-hartzearen zenbait alderdi adierazten dituzten beharrezko argazki guztiekin batera.

Txostenak emateko azken eguna 2024ko martxoaren 1a izango da (egun hori barne).

Egindako azterlan eta dokumentu guztiak Bizkaiko Foru Aldundiari lagako zaizkio. Bizkaiko Foru Aldundiak ondasun horien argazkiak eta erreferentziak hedatu eta erreproduzitu ahal izango ditu edo bere argitalpenetan sartu. Halaber, erakusgai jarri ahal izango ditu, kanpotik nahiz barrutik, baldin eta ondasun higigarri horien ohiko erabilera oztopatzen ez badute. Kontratutako enpresak ezin izango du horretarako eragozpenik jarri, egile-eskubideak argudiatuz.

Enpresek edo profesionalak ezin izango dute egindako lanaren daturik erabili beretzat edo hirugarren pertsonentzat, Kultura Ondarearen Zerbitzua berriazko baimenik gabe.

10. Lanak egiten hasten direnean eta lan horiek guztiak egiten ari diren bitartean, kartel bat jarriko da ondo ikusten den leku batean, obren babeslea Bizkaiko Foru Aldundia izan dela

9. El Obispado de Bilbao hará constar a las empresas o profesionales ejecutores de los respectivos proyectos de intervención, la obligatoriedad de entregar un informe final de la intervención realizada (por duplicado), en el plazo que se indique, para su traslado al Servicio de Patrimonio Cultural, cuyo contenido debe expresar detalladamente el proceso seguido, explicando y justificando los criterios de la intervención, así como las diferentes características y aspectos de aquel y de los tratamientos aplicados, con todo tipo de formulaciones, analítica, ficha técnica de los productos utilizados, documentación gráfica, fotográfica y vídeo (si lo hubiera) en soporte digital en el que se recogerá, además, la totalidad de la documentación fotográfica generada junto a una copia en papel del informe con las fotografías necesarias para ilustrar los diferentes aspectos de la intervención realizada.

El plazo de entrega de los informes finalizará el 1 de marzo de 2024 (incluido).

Todos los estudios y documentos elaborados serán cedidos a la Diputación Foral de Bizkaia, quién podrá divulgar, reproducir o incluir en sus publicaciones, fotografías y referencias a los bienes en cuestión, así como proceder a la exposición de aquellos, exterior o interiormente, siempre y cuando no se interfiera en el uso o destino habitual al que se encuentren afectados los respectivos bienes muebles, sin que pueda oponerse a ello la empresa contratada alegando derechos de autor.

